



## **KONTSULTA, HEZKUNTZA SAILAREN ESKOLA-JANTOKIAK 2019AN ELIKAGAIZ ETA HORRI LOTUTAKO ZERBITZUZ HORNITZEKO KONTRATAZIO-PLÉGUEI BURUZKOA.**

### **LEA/AVC 332-KOTNS-2019 ESPEDIENTEA**

#### **I. XEDEA**

1. 2019ko otsailaren 28an, LEAk Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuetako sailburuordearen idatzi bat jaso zuen; hain zuzen ere, 2019an eskola-jantokiak janariz eta horri lotutako zerbitzuz hornitzeko kontratua lizitzatzeko pleguen zirriborroaren aurretiazko azterketa eskatzen zuen.

Idazkiak dokumentu hauek ditu atxikita<sup>1</sup>:

-Oinarri teknikoen plegua (OTP)

-Administrazio-klausula partikularren plegua (AKPP).

2. Sektore Publikoko Kontratuen Legeko (aurrerantzean, SPKL)<sup>2</sup> 1. artikulua ezartzen duenez, sektore publikoko kontratazioa honako printzipio hauetara egokitu behar da: lizitazioetan parte hartzeko askatasunaren printzipioa, prozeduren gardentasunaren eta publikotasunaren printzipioa eta lehiakideen artean diskriminaziorik eta tratu desberdintasunik ez egitearen printzipioa.

Horrez gain, obrak egiteko, ondasunak eskuratzeko eta zerbitzuak kontratatzeko diru-funtsak efizientziaz erabiltzen direla ziurtatu behar da, dauden premiak aldeztu aurretik definituz, lehia askea babestuz eta ekonomiaren aldetik onuragarriena den eskaintza hautatuz, kalitate-prezio erlazio onena oinarri hartuta.

3. Azaldutakoaren xedea da lizitazioaren baldintza juridikoak eta ekonomikoak lehiaren ikuspegitik ebaluatzea.

---

<sup>1</sup> Aipatu dokumentuak txosten honi atxiki zaizkio.

<sup>2</sup> 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora (EAO, 272. zk., 2017ko azaroaren 9koa).



## II. JANARIEN ETA HORRI LOTUTAKO ZERBITZUEN HORNIDURAREN KONTRATAZIOA

### 1. Kontratuaren garrantzi ekonomikoa

4. Kontratazio publikoak garrantzi eztaba daezina du herrialde bateko ekonomian. Kontratazioak Estatuko BPGd-an duen pisuaren inguruko zenbatespenak egin dira eta lortutako zifrak % 10 eta % 20 artean daude, aztertutako iturrien arabera (ELGA, MLBN, Kontratazio Publikoaren Behatokia). Datu horien arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan, kontratazio publikoak 7.000 eta 15.000 milioi euroren arteko balioa izan zuen 2018an.

Kontratazioaren bidez administrazioak lehen mailako operadore ekonomiko gisa jarduten du merkatuan, eta giza intereseko politikak sustatu eta zerbitzu publikoak eskaini ahal izateko behar dituen sargaiak kontratatzen ditu. Merkatu guztietan du eragina eta, hortaz, baita prezioetan, kalitatean, produktibitatean eta herritarren ongizate-mailan ere. Kontratazio publikoak duen garrantzia eta aurrekontu publikoen izaera mugatua kontuan hartuta, beharrezkoa da horiek modu eraginkorrean kudeatzea. Horretarako, garrantzitsua da erregulazio bat eta lehiari mesede egingo dioten kontratazio-prozedurak edukitzea.

5. Zuzeneko kudeaketa duten ikastetxeetan jantoki-zerbitzua eskaintzeko lizitazioari dagokionez, taula honetan dago jasota 2000. urteaz geroztik Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak lizitazioei esleitutako zenbatekoa<sup>3</sup>.

2000-2023 aldian batez beste 68,8 milioi euro erabiliko dira ikasturteko, zerbitzu hori eskaintzeko.

AURREKONTUA BEZ-IK GABE				AURREKONTUA BEZ-A BARNE
LIZITAZIO-URTEA	IKASTURTEA	AURREKONTUA, IKASTURTEKA	GUZTIZKOA, LIZITAZIOKA	
2000	2000-2001	14.503.066,49 €	32.187.237,70 €	34.440.344,34 €
	2002-2003	17.684.171,21 €		
2003	2003-2004	26.855.087,36 €	57.064.075,26 €	61.058.560,53 €
	2004-2005	30.208.987,90 €		
2005	2005-2006	39.165.885,64 €	138.810.150,28 €	148.526.860,80 €

<sup>3</sup> Zuzeneko kudeaketa duten eskola-jantokiak dira zerbitzua ikastetxearen bitartez ematen dutenak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2000ko martxoaren 22ko Aginduari (ikastetxe publikoetako jantokiak arautzen dituen) II. kapituluaren ezarritako baldintzetan. EHA, 61. zk., 2000ko martxoaren 28koa. [http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-573/es/contenidos/informacion/dij3/es\\_2099/adjuntos/ORDEN%20DE%2022%20DE%20MARZO%20DE%202000.pdf](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-573/es/contenidos/informacion/dij3/es_2099/adjuntos/ORDEN%20DE%2022%20DE%20MARZO%20DE%202000.pdf)



	2006-2007	45.589.979,69 €		
	2007-2008	54.054.284,94 €		
<b>2008</b>	2008-2009	72.850.661,08 €	243.845.781,37 €	261.798.642,32 €
	2009-2010	82.629.494,35 €		
	2010-2011	88.365.625,94 €		
<b>2011</b>	2011-2012	88.365.625,94 €	341.430.900,47 €	373.806.678,00 €
	2012-2013	84.338.001,81 €		
	2013-2014	84.363.636,36 €		
	2014-2015	84.363.636,36 €		
<b>2015</b>	2015-2016	85.506.245,00 €	342.024.980,00 €	376.227.478,00 €
	2016-2017	85.506.245,00 €		
	2017-2018	85.506.245,00 €		
	2018-2019	85.506.245,00 €		
<b>2019</b>	2019-2020	89.817.894,76 €	359.271.579,04 €	395.198.736,94 €
	2020-2021	89.817.894,76 €		
	2021-2022	89.817.894,76 €		
	2022-2023	89.817.894,76 €		
<b>GUZTIRA</b>			<b>1.514.634.704,12 €</b>	<b>1.615.130.143,03 €</b>

## 2. 2019ko kontratazio-espedientearen azterketa

### A. 2015eko lizitazioaren aldean egin diren hobekuntzak

6. Espedientea bere osoan aztertu ostean, LEAren balorazioa positiboa da, aldaketak egin baitira aurreko lizitazioan ezarritako baldintzetan eta betebeharretan –CO2/010/2015 espedientea (txosten horretan ere hobekuntzak egin ziren aurreko lizitazioen aldean)–. Aldaketa horiek lizitatuak parte hartzea ahalbidetzen dute, sarrera-baldintzak eta -oztopoak murrizten baitituzte.

7. Espediente honen eta aurrekoaren arteko desberdintasun nagusia aurrekontuaren esleipen-prozeduran dago; izan ere, kontratazio-organoak alde batera utzi du prozedura mugatua eta **prozedura irekia** hautatu du.

Indarrean dagoen araudiaren arabera, ohiko esleipen-prozedurak irekia eta mugatua izango dira<sup>4</sup>. Hala ere, prozedura bat ala bestea hautatzeak badu

<sup>4</sup> SPKLaren 131. artikulua. Esleipen-prozedura.

2. Esleipena kalitate-prezio erlazio onenaren printzipioan oinarritutako irizpide anitzen bidez eta prozedura irekia edo mugatua erabiliz egingo da. Salbuespen izango dira IV. eranskinen zehazten diren zerbitzu bereziak emateko kontratuak, horiek prozedura mugatuaren bidez soilik esleituko baitira.

168. artikuluko kasuetan prozedura negoziatua jarraitu ahal izango da, publizitaterik gabea; 167. artikuluan zehazten diren kasuetan lehia-elkarrizketa edota negoziatuzko lizitazioa erabili



eragina lizitaziootara aurkeztuko den hautagai kopuruan; izan ere, ahalik eta hautagai gehien aurkezteko prozedura egokia irekia da, interesa duen enpresaburu orok aurkeztu baitezake bere eskaintza<sup>5</sup>.

Hortaz, organo kudeatzaileak hautagai gehien bermatzen dituen prozedura hautatu du, eta hori erabaki positibotzat jotzen da.

**8.** Nabarmentzekoa da lizitaziora sartzeko eskatzen diren **kaudimen-baldintzak**<sup>6</sup> ere murriztu egin direla. Espediente honetan, **kaudimen ekonomiko eta finantzarioak** honakoari egiten dio erreferentzia: lote desberdinak lizitatu ahal izateko, kontratuaren xedearen alorrean (kolektiboentzako janariak prestatzea eta haiei banatzea) azken hiru urteetako (2016, 2017 eta 2018) urteko negozio bolumena egiaztatzea. Urteko bolumenaren zenbatekoa eskaintza aurkezten den loteen lizitazio-aurrekontuaren % 50 edo hortik gorakoa izan behar da, BEZ-ik gabe, aipatutako urteetan (nahikoa da aipatutako negozio bolumena lortzea hiru urteetako batean).

Kaudimen hori SPKLaren 87.1 a) artikuluan eskatzen den minimoa baino txikiagoa da (kaudimena arautzen du, negozio bolumena egiaztatzeko eskatuta). Hala, lizitatzaillei ez zaie parte hartzeko oztoporik jartzen, baizik eta lehia malgutzen eta errazten da.

**9. Gaitasun tekniko eta profesionalaren**<sup>7</sup> apartatuan, kontratua gauzatzen den bitartean ingurumen-kudeaketako eta hobekuntza jarraituko jardunbide egokiak era sistematikoan aplikatzeko gaitasuna egiaztatzea eskatzen da, bai eta OTPak bete ahal izateko enpresan ezartzen diren instalazioen, ekipamenduaren, prozesuen eta prozeduren egokitzapenaren kontrola egiaztatzea ere.

---

ahal izango dira; eta, 177. artikuluan zehaztutako kasuetan, berrikuntzarako lankidetzak bidezko prozedura.

<sup>5</sup> 156. artikulua. Zehaztapenak, proposamenak aurkezteko epeak eta lizitazioaren iragarkia argitaratzeko epea.

1. Prozedura irekian interesa duen enpresari orok edukiko du bere proposamena aurkezteko aukera. Ezin da inongo negoziatorik egin lizitatzailleekin kontratuaren baldintzen inguruan.

<sup>6</sup> AKPPren klausula espezifikoei buruzko 21. apartatuan lizitatzailleek bete beharreko kaudimen-, sailkapen-, gaikuntza- eta baliabide-betekizunak zehazten dira.

<sup>7</sup> SPKLren 90. artikuluan zehazten da nola balioetsi behar den gaitasun tekniko edo profesionala.



**Ingurumenaren arloko jardunbide egokiak** egiaztatzen dituzten ziurtagiri jakin batzuk eduki behar izatea eskakizun egokitzat jotzen da; izan ere, SPKLk aurreikusitako aukeretako bat izateaz gain, AKPPan ezarritako ziurtagirien baliokideen bidez egiaztatzeko aukera eskaintzen da, eta horrek ez du lizitazioan sartzeko oztopo diskriminatzailearik sortzen.

**10.** Horrez gain, AKPPk **baliabideen derrigorrezko esleipena** ere eskatzen du, bai langileei, bai gutxieneko hornikuntzari dagokienez. Eskakizuna arrazoizkoa, justifikatua eta erakundearekiko eta kontratuaren ezaugarriekiko proportzionala izan behar da, lizitazioan enpresen partaidetza ez mugatzeko.

Horri dagokionez, LEAren iritzian, langileen esleipen derrigorrezkoa agintzea arrazoizkoa da; izan ere, osasun-, kalitate- eta ingurumen-arloetan langile jakin bana esleitu beharra dakar<sup>8</sup>, eta hori ezin da gehiegizkotzat jo.

**11.** Aipatu beharra dago aurreko lizitazioarekin alderatuta **lote** kantitateak nabarmen egin duela gora; izan ere lizitazio hau 30 lotetan banatzen da, 18 lotetan beharrean.

Lehiaketan aurkezteko eskatzen den kaudimen ekonomikoa eskaintza aurkezten den loteetako lizitazioaren aurrekontuarekin bat datorrenez, loteko kaudimen ekonomikoaren baldintzak murriztu egiten dira. Hori kontuan izanda, lote kantitatea gehitzearen ondorioz lehiakortasuna areagotu liteke, eta tamaina txikiko enpresak, beste era batera baldintzak bete ezingo lituzketenak, lizitazioan sartu ahal izango liriateke.

Erabakia positibotzat hartzen da, batetik, lote kopurua gehitzeak lizitazioan parte hartuko duten enpresen zenbatekoa gehitu dezakeelako eta, bestetik, tamaina txikiko enpresen partaidetza sustatu dezakeelako. Azken hori SPKLaren helburu nagusietako bat da.

**12.** Era berean, positibotzat hartzen da lote kopuruaren aldaketa, horrek kontratazioa aurreikusi ahal izateko aukera gutxitzen duelako eta, nolabait, merkatuaren banaketa zailtzen duelako. Komenigarria da espedienteak diseinatzeko orduan lizitazioen **aurreikusgarritasuna** ekiditera bideratutako aldaketak egitea; esaterako, munta desberdineko kontratuak diseinatuz edota lizitazioen egutegiaren denbora-egiturak aldatuz. Aurreikusgarritasuna

---

<sup>8</sup> Kontratuaren xedearen alorrean 4 urteko esperientzia duen arlo sanitarioko profesional bat, kalitate-arloan goi-mailako titulua eta 4 urteko esperientzia dituen profesional bat; eta, azkenik, ingurumenaren arloan goi-mailako edo erdi-mailako titulua duen profesional bat. Horrez gain, beharrezkoa da lotera esleitutako langileen % 15az edo gehiagoz osatutako langileen lan-poltsa bat edukitzea.



murriztuz gero, lizitatuzaileek esleipen-xedea elkarren artean banatzea zailtzen da.

Aztertzen ari garen kontratuak eta antzekoek kolusioa sor lezaketen ezaugarri berezi batzuk dituzte (munta ekonomiko altua, enpresen kokalekua zerbitzua eskainiko den lekutik gertu egotea behar duten ezaugarri teknikoak edota berehalakotasuna eskatzen dutenak –janariak ordu eta baldintza jakin batzuetan iritsi behar dira–, itxita egon daitezke lau ikasturtekoa ere izan daitekeen aldi; eta, gainera, eskari egonkor eta ziurra da, beharrak ikasturtetik ikasturtera errepikatzen direlako). Horregatik, positibotzat hartzen da Sailak kontratazioen aurreikusgarritasuna ekiditea.

**13.** Enpresan ezarritako **instalazioen**, ekipamenduaren, prozesuen eta prozeduren **egokitasunaren kontrola** gainditu beharko dute eskaintza onena aurkeztu duten lizitatuzaileek, esleipendun izan nahi badute. Lizitatuzaileek ezarritako balio osoaren % 63,54 lortu beharko dute, hau da, 2.400etik 1.525. Gainera, apartatu estrategiko bakoitzean balio osoaren % 50 lortu beharko dute, eta 0 puntu dituzten 5 galdera baino gutxiago eduki. 11 apartatutan dago banatuta (orokorra, AAPKK, garbiketa- eta desinfekzio-plana, langileen prestakuntza, etab.).

Aurreko lizitazioetan gauzaturiko auditoretzen antzeko kontrol bat da<sup>9</sup>. Baldintzak murriztu eta bikoiztasun batzuk ekidin dira (esaterako, aurreko aldietan kalitate ziurtagiriak aurkeztea eta auditoretza gainditzea eskatzen zen). Aldaketa hori positiboa da.

**14.** Bestalde, AKPPean honakoa zehazten da: «Kontrola gauzatuko duenak beharrezkoak diren esperientzia eta ezagutza dauzka prozesu- eta prozedura-kontrolatan eta Hezkuntza Saitetik kanpo egongo da eta Espainiako Normalizazio Erakundearen (AENOR) parte izango da».

Lizitazioetan gardentasuna bermatzeko, gomendagarria da espedientean eskatzen den edozein baldintzaren inguruko kontrola edota ebaluazioa egiteko kanpoko organo edo enpresa bati eskatzen zaionean (laborategia, kontsultoretzak, etab.), hala egin dela jasota geratzea lizitazioen pleguetan. Hori kontuan izanda, positibotzat hartzen da pleguetan xedapen hori argi azaltzea.

---

<sup>9</sup> Kanpoko enpresek gauzaturako auditoretzak egin ziren bai 2015 baino lehenagoko ikasturteetan jantoki-zerbitzua eskaintzeko homologazio-prozesuetan, bai 2015 ikasturteko espedientean.



**15. Eskaintzak baloratzeko irizpideak**<sup>10</sup>, besteak beste, hauek dira: batetik, balio-judizioaren mende dauden irizpideak (% 25), eta, bestetik, formulak aplikatuta era automatikoan balioztatzen diren irizpideak (% 75)<sup>11</sup>.

LEAren iritzian, ahalegin handia egin da balorazio-irizpideak sistematizatzeko. Balio-judizioaren mende dagoen irizpidea 36 azpi-irizpidetan banatu da. Hala, martxan jartzeko antolamendu-sistema baloratzeko eredu jakin baten arabera aurkeztu ahal izango dituzte lizitatzailleek beren eskaintzak.

## **B. Oharrak eta gomendioak**

### **a. Eskaintzak baloratzeko irizpideak**

**16. Eskaintzak baloratzeko irizpideak**<sup>12</sup>, besteak beste, hauek dira: batetik, balio-judizioaren mende dauden irizpideak (% 25), eta, bestetik, formulak aplikatuta era automatikoan balioztatzen diren irizpideak (% 75)<sup>13</sup>.

---

<sup>10</sup> Kontratuaren klausula espezifikoan 22. apartatua, AKPP.

<sup>11</sup> 22.2.1.- Balio-judizioaren mende dauden irizpideak:

Martxan jartzeko antolamendu-sistema % 25.

Eskaintzen balio teknikoa balioztatuko da. Aipatutako irizpidea balioztatzeko, enpresa lizitatzailleak bere ekoizpen-, antolakuntza- eta kontrol-prozesuak barne hartzen dituen eredu bat garatu beharko du (bai sukalde nagusiari eta dieten sukaldeari dagokienez, baita *in situ* guneei eta garraiatutakoei dagokienez ere).

22.2.2.- Formulak aplikatuta era automatikoan balioztatzen diren irizpideak:

- Prezioa (% 40,00)
- Ingurumenari dagokionez hobeak diren elikagaiak (% 25,00)
- Banaketa-ibilgailuen ingurumen-kalitatea (% 10,00)

<sup>12</sup> Kontratuaren klausula espezifikoan 22. apartatua, AKPP.

<sup>13</sup> 22.2.1.- Balio-judizioaren mende dauden irizpideak:

Martxan jartzeko antolamendu-sistema % 25.

Eskaintzen balio teknikoa balioztatuko da. Aipatutako irizpidea balioztatzeko, enpresa lizitatzailleak bere ekoizpen-, antolakuntza- eta kontrol-prozesuak barne hartzen dituen eredu bat garatu beharko du (bai sukalde nagusiari eta dieten sukaldeari dagokienez, baita *in situ* guneei eta garraiatutakoei dagokienez ere).

22.2.2.- Formulak aplikatuta era automatikoan balioztatzen diren irizpideak:

- Prezioa (% 40,00)
- Ingurumenari dagokionez hobeak diren elikagaiak (% 25,00)
- Banaketa-ibilgailuen ingurumen-kalitatea (% 10,00)



## 17. Formulak aplikatuta era automatikoan baloratzen diren irizpideen artean **ingurumenari dagokionez hobeak diren elikagaiak** baloratzea dago.

AKPPko III.2 eranskinean azaltzen diren elikagaietatik, menuetan ingurumena aintzat izanda hobeak diren elikagaien zer kopuru eskainiko den baloratuko da (bertakotasuna, jasangarritasuna, produkzio ekologikoa, produkzio integratua eta animalien ongizatea eta arrantza jasangarria). Enpresa lizitatzailleek aipatutako elikagaietatik, eta elikagai motaren arabera, zerbitzatuko duten elikagaien portzentajea zehaztu beharko dute ehunekotan:

-Bertako elikagai jasangarriak, ingurumenean duten eragina eta bizi-zikloaren kostua murriztea helburu dutenak:

Kategoria horretakoak dira kontratazio-organoaren kokalekutik 160 km-ko erradioan jaso diren lehengaiak<sup>14</sup>, baita aipatutako baldintza betetzen duten lehengaiekin egindako elikagaiak ere. (EBko Batzordearen erabakia. 2017/175, 65. irizpidea)<sup>15</sup>.

**18.** Ez dago eragozpenik ingurumen-arloko esleipen-irizpideak txertatzeari dagokionez. Indarrean dagoen SPKLAN nabarmen indartu da kontratuen pleguetan klausula sozialak txertatzeko araubidea eta, hala, kasu batzuetan klausula horiek txertatzea beharrezkoa bihurtu da<sup>16</sup>.

**19.** 2008ko apirilaren 29an Gobernu Kontseiluak *Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta bere sektore publikoaren kontratazioan gizarte-irizpideak, ingurumenekoak eta beste politika publikoak barne hartzeari buruzko Erabakia*<sup>17</sup> onartu zuen.

Jarraibideetan azaltzen da kontratazio-organoek gizarte-irizpideak eta, ingurumenekoak<sup>18</sup> txertatuko dituztela eta, ahal den neurrian, gainerako politika publikoak zehaztuko dituztela, ahal dela pleguetako kontratuaren xedearen definizioan eta deskribapen teknikoan.

<sup>14</sup> Egilearena da azpimarra.

<sup>15</sup> Pleguan sartutako Erabakia EBk ostatu turistikoei ezarritako etiketa ekologikoaren inguruko irizpideen arabera da [C(2017) 299 zenbakiarekin jakinarazitakoa].

<sup>16</sup> Nolanahi ere, txertatzea ez da era automatikoan egingo; izan ere, beharrezkoa izango da kontratu bakoitzaren arabera aurreiazko azterketa bat egitea, kasuz kasu. Doktrinak eta jurisprudentziak ingurumenaren arloko irizpideak txertatzea onartzen badute ere, ez dute hala egiten gainerako klausula sozialekin. EUROPAKO BATZORDEA. *Adquisiciones sociales. Una guía para considerar aspectos sociales en las contrataciones públicas*. 2010eko urria.

<sup>17</sup> 6/2008 Ebazpena, ekainaren 2koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, eranskinean dituen jarraibideak onartzea xede zuena. EHAA, 116. zk., 2008ko ekainaren 19koa.

<sup>18</sup> Kontratazio Publikoko Ingurumen Klausulei dagokienez, ikus Kontratazio Publikoko Aholku Batzordearen 2/2018 Gomendioa, ekainaren 21ekoa.





Jarraibideen eranskinaren VII.2 apartatuan, ingurumenaren arloko esleipen-irizpideak txertatzeari buruzkoan, zehazten da esleipen-irizpide bat baino gehiago dituzten kontratuetan, eskaintzen den produktuaren edota zerbitzuaren ingurumen-alderdiak txertatuko direla irizpideetan. Alderdi horiek produktuaren edota zerbitzuaren agindu tekniko berezien pleguan zehaztutako irizpideen gutxienekoaren gainera egon beharko dira eta, kontratuaren xedearekin zuzeneko lotura dutenez, kontratazio-organoak egokitzat jo beharko ditu eta era egokian formulatu.

Horrez gain, objektiboak, zehatzak eta objektiboki zenbagarriak izan beharko dira. Hala, enpresa lizitzaile guztiek baloratuko diren alderdi guztiak ezagutu eta era berean interpretatu ahal izango dituzte eta kontratazio-organoak eskaintzen balorazio konparatiboa egin ahal izango du.

Jarraibideetan ez da zehazten, ezin zitekeenez bestela izan, bertako edo gertuko produktuen aldeko klausulak txertatzeko aukera dagoenik.

**20.** AKPPean azaltzen den esleipen-irizpideak adierazten du ingurumenaren ikuspegitik hobeak eta jasagarriak diren elikagaiak 160 km-ko erradioan jaso diren lehengaiak direla; hots, gertuko produktua bultzatzen da.

**21.** Kasu bera ez bada ere, aintzat hartu behar dira gertuko produktuak erabiltzearen eskakizunaren artean eta kokalekua lurraldean edukitzearen eskakizunaren artean dauden antzekotasunak. Bigarren horrek, enpresaren kokalekua lurralde jakin batean egoteko eskatzen du, baina baldintza hori guztiz debekatuta dago<sup>19</sup>.

**22.** Horren inguruan aintzat hartu behar da SPKLko 126. artikuluan ezarritakoa. Bertan, zehaztaperen teknikoaren ezarpenari dagokionez, adierazten da ezin dela jatorri jakin bat aipatu enpresa edota produktu jakin batzuei mesede egiteko helburuarekin:

---

<sup>19</sup> 120/2013 Ebazpenean, OARC/KEAOek adierazi zuen kontratazio publikoaren inguruko arautegiak «debekatu egiten duela enpresa baten jatorria, egoitza soziala edota kokalekua lurralde jakin batean edukitzea behartzen duen beste edozein eskakizun egokitasun- edota esleipen-irizpidetzat hartzea (...)». Horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoko titularraren 073/2017 Ebazpenean, 2017ko ekainaren 21ekoan, «Getxon animaliak biltzeko eta zaintzeko zerbitzuaren» ingurukoan, Getxon dagoen enpresa bati 10 puntu ematen dizkion eta 32 kilometrora dagoen beste bati 0 puntu ematen dizkion esleipen-irizpidearen auzia ebazten da. Ebazpen horretan ondorioztatzen da irizpide horrek era bidegabean eta neurrigabean mesede egiten diela Getxon ostatua duten lizitzaileei eta kalte egiten diela ostatua beste herriren batean izanda ere pleguetako zehaztaperenak bete ditzaketan lizitzaileei. Hortaz, irizpidea baliogabetzen da.



6. Kontratuaren xedeak horretarako zioak izan ezean, baldintza teknikoetan ez da aipatuko fabrikazio edo jatorri zehatzik, edo enpresaburu jakin batek eskainitako produktuak edo zerbitzuak bereizten dituen prozedura jakinik, edo markarik, patenterik edo tiporik, edo jatorririk edo produkzio jakinik, enpresa edo produktu jakin batzuk aldezteko edo baztertzeko. Hala ere, zilegi izango da salbuespen gisa aipamen hori egitea, 5. apartatua aplikatuta kontratuaren xedea behar bezalako zehaztasunez edo argitasunez deskribatu ezin denean; aipamen horri «edo baliokidea» esapidea gehitu beharko zaio.

**23.** Horrenbestez, ezin dira ezarri, ingurumen-arloko irizpideen babesean, gertuko produktuei bertakoak ez diren produktuei baino lehentasun gehiago ematen dieten esleipen-irizpideak.

#### **b. Sailkapena**

**24.** Pleguetan lehiaketan parte hartzeko eskatzen den sailkapena ere azaltzen da: M taldeko 6. azpitaldeko 5. kategoria edo M taldeko 6. azpitaldeko D kategoria **eduki behar da**.

Horren inguruan nabarmendu behar da, indarrean dagoen SPKLaren<sup>20</sup> arabera, zerbitzuen kontratuetan sailkapena ez dela derrigorrezkoa eta, hortaz, gomendagarria litzatekeela AKPPan azpimarratzea kaudimena sailkapen-ziurtagiri bidez egiaztatzea hautazkoa dela.

#### **c. Pleguetan sartu beharreko klausula**

**25.** Gomendagarria da lizitazioaren iragarkian zehaztea zein diren lizitatzailleek jasan litzaketan zigorrak kolusio-jokabideak edota *bid rigging* eginez gero.

Bilbon, 2019ko martxoaren 28an

**PRESIDENTEA**

**IDAZKARIA**

<sup>20</sup> SPKLaren 77. artikuluan zehazten da zerbitzuen kontratuetan sailkapena ez dela derrigorrezkoa. Hortaz, enpresarien kaudimen-irizpideak SPKLaren 87. eta 90. artikuluetan azaltzen diren irizpideen arabera zehaztuko dira. Nahiz eta sailkapena ez derrigorrezkoa izan, araudiak zehazten du lizitatzailleak bere kaudimena honela egiaztatu dezakeela: batetik, sailkapenaren bitartez, eta, bestetik, lizitazioaren iragarkian eskatzen diren kaudimen- eta gaitasun-baldintza zehatzak bermatzen dituela ziurtatuz.



**ALBA URRESOLA CLAVERO**

**LOURDES MUÑOA CORRAL**

**BOKALA  
ENARA VENTURINI ÁLVAREZ**

**BOKALA  
RAFAEL ITURRIAGA NIEVA**

**ERANSKINA**



---

Lehiaren Euskal Agintaritza

Autoridad Vasca de la Competencia